

## Azken festarekin amaitu da EKTren laugarren edizioa

2013/07/19

Ekainaren 5ean amaitu zen EKTren laugarren edizioa. Azken egunean, Bernardo Atxagaren hitzaldiaren ostean, kurtso amaierako festa ospatuko genuen HÜHEZIren Eskoriatzako kanpusean. Bertan, ikasle zein irakasleek ikasturtearen nolabaiteko errepassoa egin zuten koplatan, antzerki bidez, olerkiekin, kantari, umore onean, beti ere. Hemen ikus dezakezue festa hartako laburpen bideoa, eta hemen daukazue egun hartan ikasleek erabilitako testu guztien bilduma.

Baina egunak eman zuen gehiagorako ere: festa amaitu bezain pronto, autoetan sartu eta Larriñoko elkarte gastronomikora joan ginen, Edorta Agirre sukaldariak prestatutako menua afaldu asmoz. Irakasleen taldea ailegatu zen bertara lehenik, eta gainontzekoen zain gelditu ziren. Gerora zetorkienaren arrastorik ere ez zeukaten artean. Bozina hotsak aditu zituzten halako batean, eta errepidera gerturatuta, bertatik bertara ikusi ahal izan zuten nola ikasle talde osoa Zuberoako maskarada bat baillitzan mozorrotuta zetorren. Elkartearen atarian, Agur Atxabalta kantatuz, era ezinhobean eman genion amaiera graduondokoari.



Agur Atxabalta kantatuz amaitu genuen ikasturtea